



Conseil de Développement du Pays Basque
Euskal Herriko Garapen Kontseilua



GIZARTE ZIBILAREN FOROA

«Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?»

Martxoaren 28an, asteazkenarekin, 17:00etan

Baionako Elkartearen Etxean

Euskal Hirigune Elakrgo Proiektuari

Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren ekarpenaren kariatara antolatuta

FOROA LABURKI

Ipar Euskal Herriaren erronka nagusien aurkezpen 1

3 sarrera mintzaldi labur

8 lantegi parte hartzeko

20 mintzatzaile, lekuko handi 1

Zein euskal gizarte bihar?

Ipar Euskal Herria erakargarri gertatzen da eta 3 urtetik 3 urtera, 10 000 **biztanle berri hartzen ditu**. Hala izanik, prestatu ote ditu egiazki **harrera lurralde** izateko behar diren baliabideak? Besteaz elikatzen den lurraldea izan eta bere kultura **partekatzer**a eta sustatzer

gona bidatzen duen lurraldea. Munduari **zabalik** den lurraldea, beti izan den gisan.

Ipar Euskal Herria demografiatzko eta ekonomiazko dinamika betean da. Baina hazte horrek mugak agerian dituen garapen eta hiritartze ereduak erakusten ditu. Ipar Euskal Herria hautuak egiteko tenorean da, eta hirigune elkargo berria aukera ederra izan daiteke antolamendu **iraunkorragoa** egiteko eta **elkartasun** berriak ehuntzeko. Ekonomia gero eta lotuago zaie bizitegiei; lanpostuen aniztasuna zalantzan da; sektore mediku-sozialak biztanleriaren **zahartz**e nabarmenari egin behar dio kasu. **Lan** munduak aldaketa sakonak bizi ditu (digitalizazioa, robotizazioa, energia trantsizioaren eraginak...). Nola presta lanean direnak aldaketa horietarako, nola **biharko gaitasunei** aitzina har? Nola eman **gazteei**, beren lurraldeari atxiki-atxikirik direlarik, beren Euskal Herria berrasmatzeko aukera eta bertan beren **lekua** atzemateko aukera? Transmisioa funtsezkoa zaigu, lehengo biztanleen eta biztanle berrien artekoa, zaharren eta belaunaldi berrien artekoa. Baloreen transmisioa, trebetasunen transmisioa, jardunena, lurrena, ezagutzarena.

Ipar Euskal Herria bizi inguruneagatik da erakargarri, natura eta kultura ondareagatik, duen nortasunagatik eta gizarte dinamikagatik, balore kolektiboengatik, itsas hegiarengatik eta mendiengatik, kalitatezko laborantza eta gastronomiarengatik, eta abar. **Ooren ondare** zaizkigun horiek, aberastasun horiek, presio anitzen pean dira eta haiek zaindu eta **transmititzeko** dugun ahalmenaz galdezkutzen digute.

Euskaldunok geure nortasuna atxikitze

ekonomia eta demokrazia ereduak asmatzen jakin dugu, bai eta «oreen» ondasun gisa kudeatzeko ere kultura, hizkuntza, herrietako bizitza, funtsak, mendi lurak, ekonomia etab.

Martxoaren 28ko Foroak biharko euskal gizartearen erronka handien gaineko gogoetari ekinen dio. Ipar Euskal Herriak bere erakunde berea sortu duen une honetan, zein leku hartuko du gizarte dinamika, zein lankidetza ezarriko dugu alor publikoaren eta pribatuaren artean? Zein aterabide irekiko dugu ooren artean erronkei erantzuteko? Zer nahi dugu **elkarrekin**?



FOROAREN EGITARAUA

Harrera eta izenpetzea 4:30etatik goiti

Osoko bilkura • 5h00-7h00

- **Idekitzea:**
 - Caroline Phillips** (Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren Lehendakaria)
 - Jean-René Etchegaray** (Euskal Hirigune Elkartearen Lehendakaria)
 - Philippe Estèbe*** (geografoa, ACADIE), foroko lekuko handia
- **Lurralde desafio handiak, Garapen Kontseiluaren ikuspuntutik**
- **Gaurko eta biharko Euskal Herriari buruz 3 ikuspuntu**
 - Francis Jauréguiberry***: Zer da hemengoa izatea ?
 - Alain Franck***: Euskal Herriko demografiaren irudia
 - Isabelle Bagdassarian***: Kolektiboko ondareetatik Oronen ondareetara

Parte hartzeko lantegiak • 7:00-8 30 [deskribapena ondoko orrialdeetan]

- **Eztabaida interaktiboak, «euskal herriko gizarte»-aren aldatzei buruz, gizarte zibilaren ideiak eta proposamenak sortarazteko** (lantegiak pintxoan inguruan)
- Iniziatiben kartografia eraikiko dugu ber denboran

Osoko bilkura • 8:30-9:30

- **Parte hartzeko lantegien bilduma**
- **Lekuko handiaren ikuspuntua**
- **Ondorioa** eta adiskidantzazko basoa/deserta

Gaua Pantxika Maitiak animaturik

* Hizlarien aurkezpena azken orrialdean

Parte hartzeko 8 lantegi

▲ Biztanle berriei harrera

Ipar Euskal Herriak urtero 3 000 biztanle berri hartzen ditu. «Euskaldun berri» horiek, hala ote dira egiazki? Nola har ditzakegu ongien? Nola gure nortasuna haiei pasaraz? Nola «ekar» ditzakegu geure gizarte eta kultura bizitzetara? Nola elkartruke eta partaidetza berriak bideratu?

▲ Gizarte lotura baserri ingurunean

Gure herrixken etorkizuna ez da soilik ekonomiaren eta demografiaren dinamikei loturik, baina baita tokiko gizarte dinamikari ere. Herritarrak eta elkarteak aritzen dira eta behar berriei erantzunen dieten proiektuak sortzen dituzte. Baina zeintzuk dira behar horiek? Zer nahi dugu (bir)sortu? Nola?

▲ Gazteak autonomo bilakatzea eta orientatzea

Nerabeek ez dute berbizimodua baserri inguruneetan eta hiriguneetan. Badira aldeak bizimoduetan, gizarte ohituretan, zerbitzuak eskuratzeko... Zein ondorio dakar horrek gazteak autonomo bilakatzeko eta orientatzeko? Nola erantzun diezaiekegu molde berri batez gazteen erronka horiei? Nola lagun ditzakegu aitzin egiten eta garatzen?

▲ Gazteen lekua bizitza publikoan

Gazteak lurraldearen etorkizuna dira! Zein nahi, zein behar berri dituzte? Nola azal ditzakete nahi eta behar horiek? Ematen ote diegu behar duten leku guztia elkarte bizitzan, ekonomia bizitzan, demokrazia bizitzan...? Zein aterabide lurraldean luzaz ari daitezten?

▲ Molde berriak eta lanlekuak

Co-working, lanpostu partekatua, telelana... Lan mundua aldaketa betean dugu. Teknologia berriak lanarekiko harremana aldatzen ari dira, enpresarekiko harremana, bai eta lurraldearekiko ere. Nor bakoitzaren bizitza eta lanekoa molde berriz gurutzatzen zaizkigu. Nola aldaketa horietara egokitu, nola aitzina hartu eta gure lurraldea antolatzean kontuan hartu?

▲ Biharko lanbideak eta gaitasunak

Ekonomiaren digitalizazioa eta robotizazioa, zahartzearen eraginak, ekologia & energia trantsizioarenak... Faktore horiek guztiek lanbideak eta gaitasunak aldarazten dituzte, bai eta langileen eta enpresetako bizimoduak ere. Nola Ipar Euskal Herri mailan eta datozen 5-10 urteotarako bilakaera horiei aitzina har eta behar berriak bideratu?

Bizilekuak & bestelako mugikortasunak

▲ Ekologia erronka berriak direla eta, bizimodu berriak sortzen dira: partekaturiko bizilekuak, elkarbidaiak... Ekonomia eta diru arazoez gain (bizitegien eta garraioen kostua), iraunkorrago diren aterabide horiek parte hartu nahia eta gizarte loturak sortu nahia ere adierazten dute. Zeintzuk dira lurraldeak eta biztanleek heldu diren urteotan baliatu ahaliko dituzten alternatibak?

Herritarren & enpresen zereginak elkartasunezko trantsizio ekologikorako

▲ Ipar Euskal Herriak militanteen eta elkarten ekimen anitz bizi ditu, energia trantsizioaren alde, eta ekonomia berriro gurera ekartzearen alde. Elkartasun kolektibo berriak sortzen dituzten proiektuak dira. Nola elkarrekin eramanak izan daitezten bultzatza, sinergia eta indar berriak sortzeko ?

Philippe ESTEBE zientzia politikoetan eta geografian doktorea ACADIE kooperatibaren kide da; kooperatiba hori Frantziako hainbat lurraldetan aritzen da. Estebe jaunak obra eta argitalpen anitz egin ditu, batez ere hiri politikaren gainean (L'usage des quartiers, l'Harmattan), lurralde antolamenduen gainean (L'égalité des territoires, PUF) eta tokiko boterearen bilakaeren gainean (Gouverner la ville mobile, PUF).

ACADIE kooperatibarekin, hurbiletik behatu dio gure lurraldearen dinamikari, «Euskal Herria 2010» prospektibatik hasi eta Elkargoaren oraingo eraikitzeraino. Euskal Hirigune Elkargoa laguntzen du (Daniel Behar eta Martin Vanier-ekin batera) elkargoa prestatzen ari den "Elkargo Proiektua" prestatzen.

Egun, geure artean dugu, saio honetako «lekuko nagusi» gisa, gizarte zibilaren eta hautetsien ikuspuntuen arteko lotura egiteko...

Francis JAUREGUIBERRY soziologo da. Paueko eta Aturri aldeko Unibertsitatean irakasle da ere eta luzaz aritu da CNRS zentroaren Sozietatea-Ingurumena-Lurraldea laborategia zuzentzen. Komunikaziorako teknologien –bereziki Internet eta sakelako telefonoen- erabileren gainean egin dituen ikerketek eman diote ospea.

Euskal Herriko gizarte eta nortasun dinamikei jarraiki aritu da beti. «Euskal Herria 2010» izenekoaren buruetako bat izan zen, non «zerbaiten kide izatearen sentimendua» garatu baitzuen.

Zein dugu sentimendu hori egun? Zerk egiten du «euskaldun izatea» 2018an? Zein oihartzun du nortasunak Euskal Herriak egun bizi dituen aldaketetan?

Alain FRANCK Atlantiko aldeko eta Pirinioetako Hirigintza Agentziaren zuzendaria da (AUDAP). Agentzia horrek kideen galdeari erantzunez hartzen du esku Pirinio Atlantikoetan eta Landen hegoaldean. Tokiko hautetsiak laguntzen ditu, bai eta Departamendu eta Eskualdekoak ere, hirigintza, lurralde antolaketa eta lurralde plangintzako politika publikoak eraikitzen. AUDAP agentziaren egitekoak mugikortasunari, bizilekuei, ingurumenari, paisaiari edo ekonomiari loturik dira. Demografia dinamiken behatokia da ere. Alain Franck kalifikazio handiko kide gisa da Euskal Herriko Garapen Kontseiluan. Euskal Herriaren portreta llaburra eskaintzen digu.

Isabelle BAGADASSARIAN gobernantza berrien gaineko doktoretza tesia prestatzen ari da. 2016an ekin zion doktoretzari, diziplinanitzeko talde baten barnean, Tolosako Zientzia Politikoen Eskolaren LEREPS laborategian, non ekonomian, kudeaketa zientzietan, lurralde antolaketan eta soziologian ikertzen ari diren ikerlariak ari baitira. Ikerketa hori LEREPS delakoaren eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluaren arteko hitzarmen baten barnean egiten da; Bagadassarian andrea Kontseiluko lurralde funtzionario da ere.

Ikerketa gaia «lurraldeen gobernantza berriak ekintza kolektiboak garatzeari loturik» du, bereziki ororen ondasunak garatzeari loturik. Euskal Herria aztertzen du bereziki, ororen ondasunen eta «ororen artean» kudeatzeko moldeak erabiltzen diren lurra baita, hala nazio mailan nola nazioarte mailan ere gai horretan berezizat ezagun den lurraldea, hain zuzen ere.

LANTEGIEN ANIMATZAILEAK ETA ESPERIENTZIEN LEKUKOAK ESKERTZEN DITUGU :

Jordan Parisse, Xabier Itçaina, Claude Labat, Jean-Daniel Elichiry, Cécile Crouspeyre, Elodie Recalde, Estelle Carricondo Cédric Sampéré, Priscila Ludovico, Imed Robbana, Maeva Januel, Julien de Labaca, Leire Loyatho, Françoise Pautrizel, Jean-Baptiste Etcheto, Dante Edme, Hélène Marty, Frédérique Harivongs, Maud Carrichon, Sandrine Wéry ...